kolaborazioak

**Inaxio Mujika Iraola** • Idazlea

# Mugatik hurbil

Gogoan dut aurreneko aldiz Martinekin hitz-aspertu bat egiteko aukera izan nuen eguna.

Ez da izan, ez, oso ohitura hedatua gure artean, eta oraindik ere badirudi ez dela behar bezala txertatua euskal letren errepublika txiki eta lepo-ardatzik gabeko honetan. Beste herri batzuetan idazle-belaunaldi bat baino gehiago aritu izan da aldi berean idazten: zenbaitetan iritziak eta ideia estetikoak elkar trukatzen eta osatzen, eta besteetan, zergatik esan ez, elkar larrutzeko eta ukatzeko xedez. Bizitzan bezala, literaturan ere, idazle gazteen helburua aita hiltzea izan ohi da maiz. Eta horretarako, harako txiste zahar hartan esaten zen bezala, gauza bat bakarra da beharrezko: aita bizirik egotea.

Eta aita bizirik zegoen; eta sarri, hainbat seme-alaba baino aurrerago zebilela esango nuke. Zaila zen aitaren kontra aritzea, aita bera gazteago, eta gazteak berak baino aurrerazaleago erakusten zuenean bere burua.

Hori dena neukan buruan, orain hamasei bat urte, "Itsasoa ur-bazter luzea da" kontakizunetik hartutako Martinen aipamen bat nire lehen liburuan sartu nuelarik, eta liburua bidaltzea erabaki nuenean. Gutun bat jaso nuen Martinena, samurra eta animoz betea, eta egunkari bateko aldizkako lanak egiten ari nintzenez, Martini elkarrizketa bat egitea bururatu zitzaidan. Horregatik diot gogoan dudala Martin aurrez aurre ezagutu nuen eguna.

Haren etxean sartu orduko aurren-aurreneko gauza balkoira aterarazi ninduen. Hendaia ageri da handik. Eta iruditu zitzaidan, bere bizitzan eta bere literaturan ezaugarri nagusia izan dena erakusten ari zitzaidala aurren-aurrenik.

Muga.

Muga batzuk pasatu izan ditu, izan ere, Martinek. Ez berak hala nahita, beharbada, baina tira, Euskal Herrira bizitzera etorri eta minik



handiena sortzen zion muga hori begi-bistan zuela aukeratu zuen etxea. Txingudiko badiari begiratu eta han mugarik ez dela, alegiazkoa dela, ohetik jaiki eta aurreneko gauza baieztatu beharko balu bezala egunero. Muga da, gainera, bere ipuin askotako gaia. Baina ez muga, gauza teorikotzat hartua; muga horiek zeharkatzen dituzten pertsonak baizik. Izan muga horiek politikoak, izan pertsonen artekoak, edo adinarenak, "Mantal urdina" ipuin-bilduma zoragarri hartan bezala.

Idaztea zuela ikasteko biderik hoberena, hala esan zidan Martinek orain hamasei bat urte egin genuen hitz aspertu hartan. «Zerbait ikasi, zerbait ulertu nahi badut –esan zidan–, idatzi egin beharra daukat horri buruz». Eta hori egin du etengabe, etorkin sentitu denean, etorkin sentsazioa gainditzeko. Bertakotzeko. Gauza asko ziren ulertzen ez zituenak, nonbait, gauza asko idatzi baitu. Berari gertatu zaionaz eta besteei gertatzen zaienaz. Gizonemakumeoi gertatzen zaigunaz, azken finean.

Bateon batek esan zuen idazlea jainko frustratu bat dela. Gauzak gaizki ikusten dituela eta hurbildu egiten dela, konponbidea aurkituko dion esperantzan edo. Martin hurbildu egiten zen, bai, eskuak erretzeraino hurbildu ere, ulertu nahi zituen horiekin bat egiteraino gehienetan, baita hizkuntzan ere. Venezuelan, hango erdaraz. Euskal Herrian, euskaraz gehien bat eta baita hemengo gaztelaniaz ere.

Gehien miretsi izan diodan gauza hori izan da. Deskribatzen zituen pertsonaietara hurbiltzeko erakusten zuen gaitasuna. Martinen begirada miresten dut. Begiradaren samurra, belaxka izan gabe. Samur izaten dakiten begirada guztiek bezala, barruan ozpina ere gordetzen duena. Xehetasun xume bati, keinu bati, edo esaldi bati zukua ateratzen zekien.

Jakin-minak eta pertsonaienganako maitasunak eraman zuen Martin idatzi zuena idaztera. Bere pertsonaiak maite zituen eta antzeman egiten zaio. Baita kazetari lana egin zuenean ere (bide batez esanda, ipuinetik oso gertu dauden erreportajeak utzi dizkigu). Badirudi nahitaezkoa zuela pertsonaiarengana hurbiltzea, maitatzea, ulertzea. Konplizitatea behar zuen.

Mugatik hurbil bizitzea erabaki zuen mugak oro gainditzeko daudela pentsatu nahi zuen Martin Ugalde idazleak. Eta etxeko leihotik ikusten diren mugak muga ez badira, gizakion barruko mugak eta elkarren artekoak baino ez dira geratzen. Horiek bai zailak gainditzen, Martin bezala maitasunez ulertu nahiz hurbildu ezean. •

**Joxerra Zabala** • Doctor en Literatura

# Del dolor del exilio

Fue en Caracas, en 1968, hablando de Andima Ibiñagabeitia y de Toribio Echevarria, cuando Martín de Ugalde certificaba con amargura el mal que en unos pocos meses había acabado con ambos, «ese dolor de corazón que da el exilio» fue el diagnóstico preciso, «erbestean ere hiltzen baita». La tragedia del destierro sintetizada en unas pocas palabras.

A Martín, sin embargo, no le ha matado ese dolor, aunque lo ha sufrido hasta el final. Su vida es la de un eterno exiliado, en Andoain, en Venezuela –la otra patria–, en Donibane Lohizune o en Hondarribia. Un hombre marcado por el desarraigo, «el destierro de familias dispersadas por las guerras», marcadas por «un dolor amarillo y difuso que va tiñendo los recuerdos de las fotografías de la víspera de una nostalgia que no cura el regreso a la tierra, cuando se produce, porque ya es tarde para los muertos y los nacidos en el destierro» ("El exilio de las Españas de 1939 en las Américas", Anthropos, 1991). Es cierto, el exilio no acaba nunca.

Erbestean ere hiltzen da. De eso sabe mucho nuestra gente. Lo hemos sabido dramáticamente este mismo verano. Y lo sabremos muchas veces porque es nuestra condena, como la de Martín, un inconformista empeñado en enfrentarse a su propio destino. Por eso se marchó antes de que Franco le pudiese echar o algo peor. Y volvió, dejando en Venezuela una vida acomodada, para reencontrarse con un país cultural y moralmente arruinado. Y no tuvo ningún problema en adoptar el euskara unificado, a pesar de que en su entorno la postura mayoritaria era contraria. Ni lo tuvo por acercarse a quienes no pensaban como él, tratando de entenderlos, en un esfuerzo por aunar voluntades; "Egunkaria" fue sin duda el ejemplo más hermoso de esa actitud abierta y generosa.

El exilio no acaba nunca, no basta con volver al lugar de nacimiento y así lo ha demostrado en su propia piel este intelectual imprescindible para nuestro futuro, casi hasta el final amenazado con la cárcel, o con retomar los caminos del destierro, con ficha policial abierta a sus casi 84 años. Y mucho antes, obligado a escribir entre líneas, a disimular su pensamiento frente a la censura, incomprendido muchas veces entre sus mismos compañeros de ideología, observado con desconfianza por todos porque no era del todo de aquí y, seguramente, tampoco de allí. Es ese destierro al que se ha calificado como interior, mucho más cruel y castrador que el exterior, una persecución que queda, en apariencia, minimizada porque la víctima vive en las mismas calles que los demás, puede ver la tele o ir al cine como los demás, pero siempre marcado por su disidencia. No es casualidad que sea éste el exilio menos estudiado, el menos conocido, el más difícil de cuantificar y, por ello mismo, el más sangrante.



El propio escritor nos da pistas de hasta qué punto destruye esa persecución interior: «A veces pienso que si no salgo para Venezuela se hubieran frustrado todos mis sueños de escribir». Lo cuenta en una extensa entrevista que le realizaron Larraitz Ariznabarreta e Iñaki Beti, incluida en "Martin Ugalde azterkizun. Encuentros con Martín de Ugalde" (Saturrarán, Donostia, 2002). «¡La aridez del pueblo era tanta!: la rutina del trabajo, los amigos sin sueño alguno, las chicas, las tabernas, el fútbol, una administración como una losa hecha del periódico gubernamental, el cuartel de la Guardia Civil donde tenía la ficha, mis intentos de trabajar en la clandestinidad (...) la caída de algunos amigos». Exilio en toda su crudeza, sin salir de Andoain.

Estoy seguro de que el tiempo, la desaparición de Martín, nos va a engrandecer su figura, su recuerdo, su obra. Es, quizá, una de las prerrogativas que tienen los perseguidos: mientras los Torquemadas poco a poco se van diluyendo en el olvido, la obra de quienes no se doblegaron permanece. Dentro de pocos años nadie hablará de un tal Del Olmo; Martín, sin embargo, seguirá en nuestras letras porque ha sido una figura de encrucijada, una de esas personalidades que abren caminos y, por ello, permanecen. El valor de un inconformista. •

**Txillardegi** • Idazlea

# Agur!

Aspaldisko honetan Martin larriki gaixoturik zegoela denok jakin arren, kolpe latza izan zaigu gaur goizekoa.

Hitz batzuk bederen idazteko eskatu didazue.

Nola ukatuko?

Baina labur jokatu beharrak, areago zailtzen dit egitekoa.

Martinek eta biok izkribuz lehenagotik elkar ezagutzen bagenuen ere, Tarnosko gure etxean (Baiona ondo-ondoan, beraz) mintzatu ginen buruz buru lehenengo aldiz 1970 urtean. Burgosko Epaiketa ari zen mamitzen, eta nik ez neukan Ipar Euskal Herrian finkatzeko eskubiderik.

Caracastik etorri berria zen bera, eta Bruselatik etorri berria ni. Eta beti bide desberdinetatik ibilirik ere, adiskide on ginen orduan, eta adiskide on egon gara gaur arte.

Ororen gainetik, Martin euskaltzalea zen. Eta abertzale sutsua, hortaz. Bihoa hau aurretik.

1961an bere "Iltzalleak" argitara zuenez geroztik, gero eta garbikiago agertu da Martinen atxikimendu iraunkorra euskararekiko. "Euskaldunon Egunkaria" projektuan buru belarri sartuz garbi agertu denez.

Martinek erdaraz hasi zuen bere idazle lana: bai Literaturaren alorrean, bai Kazetaritzarenean. Eta biotan zeukan etorkizun dirdaitsua Venezuelan.

Baina Martinek Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen.

Bai abertzaletasunaren alde borroka egiteko (PNV-ren "Alderdia" hilabetekarian ari izan zen luzaz); eta baita, esana dagoenez, hizkuntzarenean ere.

Sorreraz –edo jaiduraz nahiago bada– gizon moderatua zen Martin. Ez zituen jarrera «erradikal» delakoak maite.

Baina jokabide «erradikal» delakoak hartzen zituztenak ulertzen (are maitatzen ere) saiatzen zen. Joera honen lekuko dugu, adibidez, Lezo Urreztieta «guerrillari» iraunkorrari eskainitako lana. Baina besterik ere aipa litezke.

Arzalluz-Garaikoetxea erdibiketaren garaian, EA-ren hautua egin zuen Martinek. Eta hau ere adierazgarria da.

Lerro hauek idatzita, joan zaigun Martin Ugalde nolakoa zen hobeki uler dezakete bera zuenean ezagutzeko aukera izan ez dutenek. Agian bai! •